

KONTROL MOZIOA

IRISGARITASUN ETA MUGIKORTASUNARI BURUZ BATERA AURKEZTUKOA

Arantza González García Elkarrekin Donostia taldeko zinegotziak, Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak eta Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten dute Manteoko irisgarritasunari eta mugikortasunari buruz. Kontrol-mozioa hiru taldeek 2025eko maiatzaren 19ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioen ondorio da.

JUSTIFICACIÓN

Manteo aldaketa handiak jasaten ari da, eta GOE eraikitze lanak modu askotan ari dira eragiten inguruan. Gros auzoko azken espazio librea okupatzeaz gain, inpaktu handia eragiten ari dira auzoko mugikortasunean, bai oinezkoetan, bai ibilgailuetan. Hori dela eta, Manteoko Bizilagunak auzo-taldeak kezka adierazi digu, zenbait jarduketak haien etxeetako sarbideei eragiten dietela eta.

Manteoko bizilagunek hainbat dei egin diete udal-arduradunei akordio bat lortzen saiatzeko, baina orain arte ez dute izan esperotako emaitza.

Hain zuzen ere, Rodil kaletik behera doan eta Nafarroa hiribidearekin lotzen duen erreia kentzeaz gain, Manteo Gros auzoarekin lotzen duten oinezkoentzako eskailerak ere kendu dituzte.

Udaleko gobernu-taldeak proposatzen duen bide-alternatiba da igogailu bat jartzea Okendo kultur etxeko eskaileren ondoan. Neurri horrekin, Manteo eta Rodil kaleetan bizi diren pertsonak Alexandria kaletik joan beharko dute —askoz ere kale ilunagoa eta bakartiagoa—, edo, bestela, Rodil kaleko espaloi estuak erabili beharko dituzte.

Dena dela, Manteoko Bizilagunak elkarteak argi dauka aurreikusitako alternatibek eta neurriek egungo egoera okertzen dutela. Bistan da hiriak eraldatu eta aldatu egiten direla; hori oso ondo ulertzen dute donostiarrek. Ulertzen ez dutena da aldaketek eta eraldaketek egungo baldintzak okertzea.

Ildo horretan, herritar-talde horrek udal-gobernuari egindako eskaeraren helburua da hausnarketa-prozesu bat abian jartzea, auzoari modu aktiboan entzuteko eta irisgarritasun unibertsalaren arloan dagoen arazoa modu bateratuan aztertzeke, helburu hori betetzeko neurririk onenak har daitezen.

Hori dela eta, behean sinatzen duten zinegotziek **KONTROL MOZIO** hau aurkezten dute:

Ijentea, ITel.: 943.481.027 -
20003 Donostia

S-

1.- Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio azter dezala eta, hala badagokio, behar diren neurriak har ditzala Rodil kalean, Nafarroa hiribidearen eta Alexandria kalearen artean, bi noranzkoak —igotzekoa eta jaistekoa— mantentzeko, behar diren segurtasun-baldintzak hartuta.

2.- Era berean, udal-gobernuari eskatzen dio manten dezala oinezkoen sarbidea, Nafarroa hiribidea eta Rodil kalea lotzen dituzten egungo eskailerek ahalbidetzen duten moduan, Rodil kalean eta Manteoko zeharbidean bizi diren pertsonen oinezkoen ibilbideak izan ditzaten.

Donostia, 2025eko maiatzaren 9a

Izpta.:

**Elkarrekin Donostiako zinegotzia
zinegotzia**

Talde Popularreko zinegotzia

EH Bilduko